

PERFEKZIO BIDEAREN SARRERA

Liburu hau da Teresaren lumaren emaitzarik finena, adituek diotenez. Beste inon baino argiago, zehatzago, sakonago azalduko du hemen Jainkoarekiko maite-harreman barnekoia, otoitzaz eta penitentziaz elikatzen den eta helburu apostolikoa duen kontenplazio-ideala.

Otoitzaren eta kontenplazioaren maistra berdingabea

Gertakarien harian eta Jainkoak hala nahirik, Teresak kontenplazio-otoitzera daraman bidea irakasteko eta Karmeldarren Ordenan otoitzaren ideala eraberritzeko misioa izan du bere gain; horretarako, mistikoek duten zentzu praktikoaz, bere inguruan biltzen ditu arima xume gutxi batzuk. Ávilako San Josereneko ahizpak dira, eta, kristauen artean entzuten ziren haustura-hotsei otoitzaren ahots isilez erantzun nahirik, Ordenaren erreforma-mugimendura erakartzen ditu.

Mugimendu honek helburu apostolikoa izango du argi eta garbi: Kristoren Elizaren alde egitea, Ordenaren hasierako leialtasunera eta otoitz-bidera itzuliz; hau da: Kristoren bandotik, kontenplazio-bidetik, borrokatzen dira. Kristauen artean luterotarrek eragin zuten hausturak argi gorria piztu zion kontzientzian eta hori izango da biziera berriari ekiteko bultzada. Hona berak dioena:

“Garai honetan Frantziako gaitzen eta luterotar hauek egin zituzten hondamenen berri izan nuen eta nola zihoan haziz zori-

3 rotulos 215
 Sabi en de los errores de este mundo
 tenio de san p se f armo tenio li on
 a del se presento de fray dominico
 vanez de la orden de san bernard
 q al presente en su se pr por ari
 vir al grupo a los devocion en gpa
 ra pro ver tior tado un das pels
 nos es piri tuales y san to poble a
 finar me an tan by n pvtuna de
 lo a qay vixer me tan a amor q ang
 ay libro muchos q de est fr atang qj
 en lo bebi en a sabi de lo qe vi be pa
 reo: lo p hmo fad aq aq tal al grupo
 a los ruperite to y fal to mo qo tias
 muy per se to y ramos dig a si de tan
 det de se q to e bit y luy n pvtuna
 ci un q me e de ter mi nado a a d r to pare
 cion some por pvtuna ci nes y muy l d ad
 q f uel senta rier tal de a de q to les
 a p w be de y me to da a q q to de sim
 a o r tate q ier to de de p i me de
 el q a de pvtuna de dig v to q ma n

Valladolideko Perfezio bidearen eskuizkribu autografoa

gaiztoko sekta hau. Samin handia eman zidan, eta zerbait egin nezakeelakoan edota zerbait banintzelakoan, negar eta negar egiten nuen Jaunarekin eta arren bai arren eskatzen nion senda zezala hainbesteko gaitza. Neure baitan uste nuen, mila bizi emateko prest nengokeela han galtzen ziren hainbeste arimetako bakar bat oneratzearren. Eta neure burua emakume eta kaskar eta Jaunaren zerbitzuan nik nahi nukeen onura lortzeko ezindua ikusirik, hala ere, nire irrika guztia izan zen, eta orain ere hala da, Jaunak hainbeste etsai eta hain adiskide gutxi dituenetz gero, hauek onak izan daitezela. Beraz, nik neure esku zen apur hori, hau da, Ebanjelioko aholkuak ahal nuenik eta hobekien jarraitzea erabaki nuen eta hemen dauden gutxi hauek ere gauza bera egin zezaten lehiatzea, Jainkoaren onberatasun handian uste osoa jarririk, beragatik guztia uztea erabakitzen dutenei ez baitie sekula ere huts egiten” (*Perfekzio bidea* 1, 2).

Erreformarako abiapuntua, Kristoren ondoan, haren Elizaren alde gudukatzea izan bazen, otoitzaren armez gudukatzeko trebatu beharra, instrukzio beharra, izango zuten. Horretarako da *Perfekzio bidea*, Teresaren obra gorenetakoa.

Perfekzio bidea idazteko eragina

Nola otu zitzaion Teresari obra hau idaztea? Autore espiritual batek honela azaltzen du: San Josereneko ahizpek, bera otoitzean hain murgildua eta Jaunari hain emana ikusirik, haren handitasunaz eta Jainkoagandik zein hurbil den ohartzen dira, eta beraiei ere otoitz egiten irakasteko eskatzen diote...

Jesusi ere eskaera bera egin zioten beraren ikasleek: “Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala” (Lk 11, 1-2). Eta Jesusek *Gure Aita* esaten irakatsi zien. Otoitzerako jarrerak, giroak nolakoa izan behar duen adierazten die eta baita zer eskatu behar den ere: “Otoitz egiteko, sar zaitez zeure gelan, itxi atea eta egin otoitz ezkutuan

dagoen zeure Aitari, eta ezkutukoa ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina” (Mt 6, 6-7).

“Otoitz egitean, ez ari esan eta esan, jentilek ohi duten bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan horien antzeko, bai baitaki zuen Aitak zeren beharra duzuen, zuek eskatu baino lehen. Zuek, egizue otoitz honela: *Gure Aita...*” (Mt 6, 7-9...).

Berez-berez jo zuten apostoluek Jesusi otoitzaren sekretuak irakasteko eskatzera. Izan ere, beraiek miresten zuten Jesus hura sarri-sarri ikusten zuten Aitarekin harremanetan eta hura imitatzeko gogoia piztu zitzairen. Jakin-minak ere jo zituen. Ez zekiten garbi Jaunak zer egiten zuen pixka batean beraiengandik urrundu eta bakardadera joaten zenean.

Teresaren eta Ávilako San Josereneko ahizpen artean ere horren antzekoa gertatzen zen. Alde batetik, amaren ohiko jarrrera, esperientzia dago; eta bestetik, amaren mirespenez bizi ziren alabengan, hura imitatzeko eta haren bideko sekretuak ikasteko desira; hau da, kontenplazio-bide misterioetsuan haren eskutik eta gidaritzapean barneratzeko desira. Ingurumari horretan sortzen da, haiek, otoitzerako liburu bat beraientzat idatz zezan, beren nagusi eta amari indar egitea, presio egitea.

Perfekzio Bidea, Ávilako San Josereneko mojen eskariari men eginez burutu zuen. Hau da, *Bizitza Liburua*, Jainkoak egiten zizkion mesedeen eta ariman gertatzen zitzaizkion gauza ezohikoen kontu aitor-entzuleei emateko idatzia zenez gero, San Josereneko ahizpek ez zuten hartarako sarbiderik eta Teresa beren amaren lanak irakurtzeko irrika biziz zeuden, ezinbestean. Obra honi autoreak berak eginiko hitzaurrearen aurreko oharrean hitz hauek ageri dira:

“Liburu hau, Teresa Jesusenak, gure Jaunaren eta Jainkoaren Ama Birjina aintzatsu eta gure Amaren laguntzaz, Karmengo Amaren hasierako Erregelaren arabera fundatu zituen monasterioetako ahizpa erlijioso bere alabei emandako

abisu eta aholkuez, ari da. Batez ere Ávilako San Jose Monasterioko ahizpei zuzendua dago, lehenbiziko fundazioa izan baitzen eta bertan priore izan baitzen idatzi zuenean”.

Liburu hau idaztean, Teresa gogotsuago dago eta bere burua gai ikusten duela dirudi, bere alaba moja karmeldar oinutsei, batez ere Ávilako San Josereneko mojei, otoitzaz eta perfekzio-bideaz irakaspen probetxugarriak emateko. Alde batetik, esperientzia eta jakintza praktikoa handia bildu du otoitz bideetan; bestetik, monasterioko bere alabek maite dute eta maitasunak zoztor guztiak kentzen ditu. Are gehiago, monasterio barruko xehetasun txikietan, emakumeek baliteke, gizonetako letradun jakintsuek baino hobeki asmatzea. Beraz, hor dugu Teresa, maistra espiritual berdingabea, estilo lasaian eta bere ahizpekin elkarrizketan, otoitzari eta perfekzio-bizitzari buruzko lan didaktiko fin-fina idazten. Hona goiko lerroetan idatzi ditudan ideia horiek Teresaren beraren hitzetan:

“Haiek didaten maitasun handiak, akastuna eta hala-holako idazkeran adierazia izan arren, oso ongi idatziak dauden eta zer idazten duen dakienaren liburu batzuk baino ere onargariago egin dezake”.

Eta pixka bat aurrerago hau dio:

“Badakit ez dela nigan falta maitasun eta desirarik, ahal dudana guztian nire ahizpen arimek laguntzeko, Jaunaren zerbitzuan oso aurrera joan daitezten. Eta maitasun hau, ditudan urte eta monasterio batzuetako eskarmentuarekin batera, baliteke ongi etortzea gauza txikitxoetan jakintsuek baino hobeki asmatzeko, hauek zeregin garrantzitsuetan ari direlako eta gizon sendoak direlako, ez baitiete kasu handirik egiten itxura batean ezer ez diren gauzei”.

Ingurumaria eta bilgune espirituala

Beraz, hamabiko irakurle talde bat du zain Teresaren lumak. 1565eko udan izan zuen hasiera talde honek. Ondoren-

go lau edo bost urteetan ugarituz joan zen. Teresaren bizitzako urterik lasai eta zoriontsuenak izan ziren. Oasi bat bezala zen monasterio hura lehenago eta geroago izan zituen fundazioetako atzera-aurrera eta zalaparten artean. Ikasteko gogoz eta idealismo erlijiosoz isiotuak zeuden arima gaztez inguraturik, ametsezko ingurumaria begitandu zitzaion hura. Honela agertzen digu berak hango giroa:

“Ávilako San Jose fundazioaz geroztik bost urte egin nituen han; orain sentitzen dudanez, uste dut, nire bizitzako baretsuenak izan zirela; baretasun eta atsedeen haren falta sumatzen du sari nire arimak. Garai honetan urte gutxiko zenbait neskatila sartu ziren moja, zirudienez, munduak beretzakotzat zituenak, beren apainketa eta txukuntasunean agertzen zenez. Jaunak berehalako batean huskeria haietatik aterata, bere etxera ekarri zituen, eta hain perfekzio handiaz jantzi, non harri eta zur uzten baininduten.

Ni atseginez nengoen hain arima santu eta garbien artean, haien ardura bakarra gure Jauna zerbitzatzea eta gorestea baitzen”.

Teresa bera ere tentsio espiritual handian bizi zen garai horretan. *Seigarren egoitzetako* zeharkaldian zihoan, barne-bultzada bizi eta maitasun-gainezkaldi artean, beste bizitzara porturatzea ia begi bistan zuela: “Nik uste dut Jaunak hau amaitzea nahiko duela noizbait, orain bezala gauzak aurrera badoaz, bizia amaitzarekin batera, hain oinaze handia nahiko baita horretarako, baina nik ez dut merezi” (*Bizitza Liburua* 20,13).

Autorearen eta irakurleen arteko bi tentsio espiritual hauen bilgunetik erretzen da Teresaren lan bikain hau.

Bi idazketa eta kopiak

Bi idazketa izango ditu, baina lehenengoak eta zentsoreen esku-sartzeak markatuko dute bigarrena. Berezko jarioan, bi-

hotzetik hara idatziriko orrialdeak dira; barru-barrutik idazten den gutun bat bezala, solasaldi bat bezala, baina era berean garrez beteriko orrialdeak dira. Zergatik garrez beterikoak? Ez bakarrik Teresa eta honen inguruko irakurle-taldetxoa, beren kontenplazio-begiratokitik, Europaren eta Elizaren gertakari zorigaiztokoan lekuko direlako, baita, Espainia barruan eta Gaztela barruan, Inkisizioaren, teologo eta espiritualen ingurumari gatazkatsuagatik ere. Hori guztiori pilpilka ageri da orrialde hauetan. Kristau herriaren zatiketa eta Elizaren hausturagatik garrasia, teologo eta inkisidoreei buruzko erreferentzia erdi estaliak, emakumearen goratarrea, gudu zantzuzko esaldiak (“hemen itxirik, haren alde borrokatzen gara”; “Buruan sar ezazue, ene ahizpak, Kristogatik hiltzera zatozte-la, eta ez haren bizkar gozatzeraz” etab.).

Liburua irakurleen eskuetan utzi baino lehen, Teresak zentsoreei, bere adiskide teologoei, eman behar zien, azter zezaten. Haietako batek oharrez eta urratuz beterik itzuli zion; idazketa berri bat egin zezala gomendatzen dio, gainera.

Teresak, aholkua aintzat hartuz, hala egiten du. Bigarrenez idazten du liburua, zentsoreei desegokiak iruditu zitzaizkien esaldiak, formak eta xehetasunak baztertuz. Horrela, konparazio arruntak, liburuen debekuaz erdi esanean uzten dituen ai-puak, Bibliako glosak, bere esperientzia espiritualaz agerturiko mezuak etab. ezabatu egin dira.

Horrela, pixka bat motelago geratzen da *Perfekzio bidea*; indarra, berezkotasuna eta grazia literarioa galtzen ditu. Baina doktrina aldetik aberatsago, ziurrago geratzen da eta, oro har, onargarriago, egokiago. Eta, oraingoan bai, irakurleen eskuetara iristeko modua egiten du. Lehenengo idazketaren auto-grafoa Escorialen gordetzen da Santaren beste eskuizkribu batzuekin batera; bigarrena, berriz, Valladolideko moja karmeldar oinutsetan. Horrez gainera, kopiak asko ugaritu ziren. Haietako batzuk Teresak berak aztertu zituen eta bere eskuz

sinatu onarpena emanez, esaterako, Madrilen eta Salamancan gordetzen direnak. Toledon ere bada beste eskuizkribu bat, autorearen sinadurarik ez duena, baina orrazketa ugari dituen, inprimategirako prestatua baitzen.

Balio literario eta berezitasunak

Obra honen balio literario eta berezitasunetatik hauek azpimarra daitezke:

Lehenik, autoreak hemen darabilen lagunarteko estiloa. Irakurleekin hizketan ari balitz bezala idazten du; komunitateko bileran, kapituluan, nahiz jostaldian ohi den antzeko airean. Hona zenbait adibide:

“Zuzen zabilzate hori gogoetazko otoitza dela esatean. Baina nik diotsuet, ez dakidala egiaz nola bereiz daitezkeen, ahozkoa behar den bezala eta norekin hitz egiten dugun dakigula errezatua izango bada”.

“Uste duzue gorabehera gutxikoa dela zerua zer den eta zuen Aita guztiz santua non bilatu behar den jakitea? Bada, nik diotsuet adimen barreatuentzat garrantzi handikoa dela, ez hau sinestea soilik, baita esperientziaz ulertzen saiatzea ere”.

“Nik diotsuet honetan arrazoia duzuela, Jainkoak nahikoa erruki erakutsi digulako; baina –esan dudanez– Judas ikusten dudanean Apostoluekin, eta Jainkoarekin berarekin zituela beti harremanak, haren hitzak entzunez, konturatzen naiz ez dela ziurtasunik honetan”.

Bigarrenik, idazten duena bizitzarekin lotzeko asmo finkoa erakusten du. Ez du idazten kontzeptuetatik, bizi izaniko esperientziatik baizik. “Ez dut esango, neugan edota besteengan ikusita, esperientziaz ez dakidan gauzarik” dio obra honen hitzaurrean. Esperientziaz baliatuko da bere bizitza taldearekin lotzeko.

Hirugarrenik, Ebanjelioaren mezua du ore arimen janaria moldatzeko, eta Elizaren ona beti ikusmiran, misiolari-espirtua eragile duela. Alde hau are gehiago azpimarratzen da ondorengo lerroetan.

Teresaren eskola

Obra didaktikoa da, formaziokoa, karmeldar oinutsen artean eskola bat sortuko duena. Teresaren espirtua, arnasa, dabil eskola honetan, Karmel Mendiko hasierako espirtuarekin bat egiten duena. Baina adituek azpimarratzen dutenez, Santa Teresak, hemen, bizitzaren ikusmolde berri bat sortzen du: kontenplazio-otoitza apostolutzara guztiz bideratua. Elizaren onerako fruitu ematen duen otoitzak, une hartan, berritasuna zekarren, hots berria zuen. Kontenplazioa eta apostolutza horrela uztartzea Teresaren ekarpen berria izan zen. Ez bakarrik otoitza eta apostolutza elkarrekin biltzea, baita kontenplazioa eta apostolutza biltzea ere. Eta kontenplazioa berriazko otoitza da, bihotzetik harako otoitza da, barrubarrukoa, arima Jaunagana hurbildu eta harekin adiskideharremanetara erakartzen duena.

Kontenplazioari emanik dagoen arima batek esku handia du Jainkoaren bihotzean. Hori zen Teresaren asmoa, esku edo ahalmen hori erabiltzea Kristoren Elizaren zerbitzuan, kontenplaziozko arimak sortaraztea Elizari laguntzeko. Hauxe da Teresaren eskola, *Perfekzio bidea* obran egosten eta irakurleari helarazten zaiona.

Luis Baraiazarra Txertudi